

Manifestua giza itzulpenaren zigilu baten alde

Hainbeste gauzaren amaiera iragartzen duen mende-hasiera asaldagarri honetan, giza –soilik giza– jarduera gutxik lortzen dute beren zaleen kopuruari eustea eta, are, hura handitzea. Haien artean, bereziki nabarmentzen da irakurketa, hau da, beste gizaki batek kontaturiko gertaerak edo asmatuak istorioak barneratzean datzan jarduera, guztiz alferrikakoa irizpide materialista hertsien arabera eta, beharbada horrexegatik, baita biziki aberasgarria ere.

Horren adierazgarri da **Espainiako argitalpen-sektoreak inoiz ez bezalako sendotasuna bizi duela gaur egun** eta gazteena dela urtetik urtera gehien igotzen den irakurle-segmentua. Horrez gain, literatura inspirazio-iturri da masiboki kontsumitzen diren eta diru-irabazi eskergak sortzen dituzten kontakizun mota guztietan, hala nola telesailak eta filmak edota bideojokoak. Makinek ez bezala, **jatea bezain beharrezko dugu gizakiok fikzioa.**

Alta, adimen artifizial sortzailearen (AAS) bidez idatzi, itzuli edo irudizaturiko liburu batek giza ezaugarri bakarra du: motorrak hasiera-hasieran elikatzeko erabili ziren materialak, zeinak datuak berebiziko abiaduran banatzeko baliatzen baitira gerora. **Noizbait gizatiarra izan zen eta hala izateari utzi dion zerbaitez jabetzean datza.** Ez daukagu daturik egiaztatzen duenik zenbateraino sartu den AASa Espainiako argitalpen-prozesuetan, baina Frantzia dagoeneko bada argitaletxe bat, Harper Collins, duela gutxi erabaki duena itzulpen automatikoaren bidez itzuliko dituela literatura erromantikoko bere bildumako (Harlequin) lanak. Eta pentsatzekoa da beste batzuek ere gauza bera egingo dutela aurrerantzean.

Historian zehar, teknofobia, Industria Iraultzaren abaroan sortua mugimendu luditarekin batera, alferrikakoa suertatu da aurrerabide deritzon hori geldiarazteko. Ez da gure asmoa dinamika horri galga ematea, ziurrenik ez baitu atzera-bueltarik eta ikusteko baitago zer ondorio utziko dituen gizateriaren bilakaeran, baina zinez uste dugu beharrezkoa dela prozesuaren **gardentasuna** aldarrikatzea, giza sorkuntzaren funtsa babestuko badugu, harekek bereizten baikaitu, oraindik ere eta gauza guztien gainetik, makinetatik.

Supermerkatuan ere, kontsumitzaile garen aldetik, jakin nahi izaten dugu nongoak diren elikagaiak edo genetikoki eraldaturiko osagaririk ba ote duten; bada, **irakurle garen aldetik ere, eskubidea dugu jakiteko ea erosi nahi dugun liburu bat AASaren bidez sortua izan den, izan osorik, izan haren zati bat.**

Ez gaitezen engaina: argitalpen-industriak bilatzen duena ez da azken produktuak kalitate hobea izatea, ezta publikoarentzako salmenta-prezioa merkatzea ere (nahiz AASa erabiltzeak kostuak nabarmen murriztea dakarren), baizik eta **bere mozkin-marjina handitzea, argitaraturiko liburuen kalitatearen kaltetan**, eta, are gehiago, «edizioaren parien» kolektiboa –itzultzaileak, zuzentzaileak, maketatzaileak, ilustratzaileak– gero eta gehiago prekarizatuz jarduten du, azken hamarkadetan gero eta zailagoa baitzaio irautea. Argitalpen-prozesuen automatizazioak bere horretan segitzen badu, arimarik gabeko testuei bizi poxi bat ematen saiatzea izango da kolektiboaren lana, lan ezinezkoa bidenabar esanda, zeren **gizakiek sorturiko literatur lanak etengabeko elkarrizketa baten bidez birsortzen dira; AASak sorturiko testuak, aldiz, birpobretu egiten dira**, etengabeko autofagia batek sormen-printza oro suntsitzen baitu. Eta ezin ahortzi AASa masiboki erabiltzeak nolako **ingurumen-kostua** dakarkion gure planeta ahitu honi eta zer arrisku eragiten dituzten makinen ohiko «**haluzinazioek**», hala nola desinformazioa eta kultur suntsiketa.

Horregatik guztiagatik, ahotsa altxatu nahi dugu **arteek eta orobat literatur itzulpenak berezkoa duten giza izaera** aldarrikatzeko eta AASa argitalpen-prozesuetan **gardentasunez** erabil dadila exijitzeko. Gardentasunak, hain zuzen, esan nahi du informazioak argia, erraza eta irisgarria izan behar duela, eta, ildo horretan, argitaletxeak gonbidatzen ditugu **GIZA ITZULPENAREN ZIGILUA** ipin dezaten beren liburuen azaletan. ACE Traductores elkarteak hura erabili nahi duten partikular, enpresa eta erakunde publiko guztien esku jartzen du zigilua.

Giza itzulpenaren zigilua. Datuak ziri, liburuak sari.

Itzulpena: Amaia Apalauza